

ELKARBIZITZEN IRAKATSIZ:

**Familiekin lan egiteko emozioen
konpetentzia eta gatazken ebazpena.**





Ainara Lasuen Elorz . Psikologian Lizentziatua.

HELBURUAK:

1.- Zeintzuk dira familiekin elkarlana burutzeko beharrezkoak diren konpetentzia emozionalak?

2.- Nola hurbildu familiak eskolako proiektura? Nola hurbildu familiengana?

Haurraren harremana bere familiarekin: SISTEMA BATEN PARTE GARA



Askotan uste dugu isolaturik gabiltzala munduan.

Norberak familia bat dauka eta familian leku bat dauka. Sistema horri loturik gaude, eta lokarri horiek apurtezinak dira.

Familiak ematen du bizitzeko indarra. Han aurkitzen da zoriontasuna.





ESKOLA: SISTEMA BAT

Ikasleek helduen laguntza behar dute ikasteko.

ELKAR-LANA



“Hace falta una tribu entera para educar a una criatura” (Dicho africano)



IF IY

- **BEGIRADA SISTEMIKOA:**

“FLY” izkutuan dago. Ez da momentuan agertzen. Begirada zabala (aurreritzirik gabe) eta globala (ingurura orientaturik) edukitzea beharrezkoa da ikasleekin dauzkagun eta ikasleen artean dauzkaten harremanen konplexutasuna ulertzeko.

- **HARREMANEN DINAMIKA ULERTZEA:**

Orbanak, dauden moduan, FLY hitza osatzen dute.

Sintomak (gatazkak) diren moduan onartzen direnean, KONPONBIDEAK aurkitzen dira.

Bidea hau da: gatazkak eta seinaleak aztertu; dinamikak ulertu; bakoitza bere tokia hartu eta konponbidea argitu.

- **JARRERAK ALDATZEA ETA INDARBERRITZEA**

Agerian dagoenari soilik begiratzen badiogu (orbanei, gatazkari, arazoei), dinamika horrek dakarren konponbidea ez dugu ikusten (“fly” irakurtzea ezinezkoa da). Behin eta berriz kezkatzen gaituena azpimarratzeak (orbanak) konponbideak (“fly”) aurkitzea galera du.

NON DAUKAZU ZUK BEGIRADA?

HELDUAK: EREDU LAGUNTZAILEAK




- Helduak helduak dira, ez haurrak. Gidariak dira, ez lagunak. Maitasuna eta errespetua eskeini behar dute baina ez “gustoko izan”.
- Irakasleak gurasoen aliatuak izan behar dute, ez ikasleenak. Gurasoek irakasleekin bat egin behar dute, seme-alaben onerako.
- Irakasleak gurasoekin lan egiten dutenean, autoritatea irabazi egiten dute eta ikasleei irakasteko prest daude.
- Dagokion rola hartzen ez duena “erre” egiten da.
- Gurasoek eta irakasleek elkarrekin lan egiten dutenean, ikasleak ikasi egiten dute.

HELDUAK: EREDU LAGUNTZAILEAK (2)



- Aita eta ama onak izateko lehenengo semea eta alaba onak izan behar dugu (bizitza eskertu eta jaso genuena eskertu)
- Irakasle izateko lehenengo ikasle izaten ikasi behar dugu (irakatsi zigutena eskertu).
- Gurasoek, baita irakasleek ere, daukaten guztia eskeintzen dute, baina hurrek batzuetan ezin dute jaso.
- Gure historiarekin bakeak egiten ditugunean, ondorengoei laguntzen diegu.

IRAKASLEEN ERANTZUNAK



Maisu! Andereino!
Ondo hazteko ondorengoak
behar ditugu:

- MUGAK
- MAITASUNA
- AZALPENAK

Txikitatik hiru gauzak jasotzen
ditugunean, hobeto hazten gara.

AZALPENAK

ematen
dizkiguzuenean,
seguru sentitzen
gara eta gure
lojika erabiltzen
ikasten dugu:

- Sena erabiltzen.
- Ziurgabetasuna jasaten.
- Fedea edukitzen.
(batez ere beldurturik zaudetenean)

MUGAK ipintzen


dizkiguzuenean
borondatea garatzen dugu,
bizitzaz arduratzen gara,
eta eskubideak
errespetatzen ikasten
dugu:

- Gure mugak errespetatzen dituzuenean.
- Autoritarismorik gabe komunikatzen zaretenean.
(batez ere haserre zaudetenean)

MAITASUNA

oparitzen
diguzuenean,
zoriontsuak gara
eta zainduta
sentitzen gara,
zuen laguntza
daukagula
badakigu eta
besteren premiak
aintzat hartzen
ikasten dugu:

- Maitasuna dohainik eskeintzen duzuenean.
- Helduak izaten irakasten diguzuenean.
(Batez ere triste zaudetenean)






LAN TALDEA

**Nolakoak dira ondorengo ezaugarriak dituzten
IRAKASLEAK?**

- a) Muga asko ipintzen dituztenak baina azalpen eta maitasun gutxi eskeintzen dituztenak?
- b) Maitasun asko ematen dutenak baina azalpen gutxi ematen dituztenak eta muga gutxi ipintzen dituztenak?
- c) Azalpen asko ematen dituztenak baina maitasun gutxi ematen dutenak eta muga gutxi ipintzen dituztenak?

Muga gehiegi: JARRERA AUTORITARIOA



EZAUGARRIAK:

Arrakastak ez dira kontutan hartzen eta akatsak adierazten dira. Bikain dagoena soilik goraipatzen da. Errudun sentiarazten dituzten estrategiak erabiltzen dira: kritika gogorak, agresibitatea eta zigorra.


PENTSAMENDUAK:

Haurrei gauzak gaizki egitea gustatzen zaiela pentsatzen da. Horrela, beharrezkoa da zigorra; errudun sentiarazten duelako eta arduratsuago bihurtzen direlako.

ONDORIOAK:

- Beldurra: ez dira kapaz sentitzen gauzak ondo egiteko. (Amorrua eta bihurrikeria). Zigorrak saihesten dituzte.
- Segurtasun falta: erabakiak hartzeko zailtasuna.
- Autoestima falta: errua. Sentimendu hauek babesteko nahian, gurasoak direnean jarrera autoritarioa errepikatzen dute.

Maitasun gehiegi: JARRERA PERMISIBOA



EZAUGARRIAK:

Ondorengo egoerei beldur dira irakasle hauek:

- **Ikasleak huts egiteari, haserretzeari, sufritzeari.**
- **Jendearen aurrean irakasleak nabarmen usteari.**

Horregaitik ikasleei aurrea hartzen diete eta erantzuten dute. Horrela haurrak ez dira bere buruaz jabetzen eta ez dute hutsik egiten, beraz, ez dute ikasten.

PENTSAMENDUAK:


Haurrak ahulak direla pentsatzen da eta ezingo dietela krisialdiei aurre egin.

Frustrazioa gaizki dagoela pentsatzen da eta haurrak pozik egon behar dutela uste da.

ONDORIOAK:

- **Dependentzia: ez diote bizitzari aurrea hartzen.**
- **Superbabestea: egoerara moldatzen dira eta betirako haur izan nahi dute.**

Azalpen gehiegi: **JARRERA HOTZA**



EZAUGARRIAK:

Haurrak zaintzen eta hezitzen dira baina inplikazioa eta afektibitatea falta dira. Ikaslearen arrakastak eta ahaleginak ez dira kontuan hartzen. Erantzun lojikoak ematen dira eta espero da ikasleek berdin egitea. Norberaren hazkunde pertsonala eta soziala da garrantzitsua; ikasleekin duen harremana baino.

PENTSAMENDUAK:




Ikasleak bizitzeko zer behar duten dakitela uste da. Beraz, garrantzitsua da bakarrik ustea, horrela naturalki indartuko dituzte bere trebeziak.

ONDORIOAK:




- **Bakardadea:** arriskuen aurrean bakarrik sentitzen dira.
- **Segurtasun falta:** informazio berrien edo arriskuen aurrean, babesik eza.
- **Pertsonalitatean:** Aldakortasuna, aldentzea, segurtasun falta.


HEZITZEKO JARRERA OREKATUA

SEGURTASUNA BEHAR DUTENEAN: AZALPENAK




- Lasaitzen garenean. Arazoa aztertzen dugu eta erabakitzen laguntzen diegu. Lojika eta sena erabiliz. 
- Erabakitakoa martxan ipintzen laguntzen diegunean.  Iraunkortasunez eta kuraiaz.
- Beraian fedea dugunean eta aurrera egingo dutela esaten diegunean. 

JOKAERA DESEGOKIEN AURREAN: MUGAK


- Argi eta garbi esaten diegunean egin dutena ez dugula gustoko eta egindakoa zuzentzea eskatzen diegunean. 
- Ez ditugunean makurrarazten: gure emozioak izendatzen ditugu eta behar duguna eskatzen diegu. 
- Ez ditugunean zigorrak inposatzen: okerra zuzentzeko ekintzak proposatzen ditugu. Hauek guztion mesederako izango dira. 



LAGUNTZA BEHAR DUTENEAN: MAITASUNA

- Beraien premiei lehentasuna ematen diegunean. 
- Laguntza egokia aukeratzen dugunean (Laguntzen zaitut zeuk zeure burua laguntzen baduzu) 
- Ezetz esaten dugunean laguntza beharrezkoa ez denean. (Nahiz eta haserretu edo txantaje egiten digute) 

GATAZKAREN DINAMIKA. ELKARBIZITZAREN FASEAK.



GATAZKARI AURRE EGIN

Arratoia:
Pasiboa



Dragoia:
Agresiboa



**ASERTIBITATEA: GATAZKARI AURRE EGITEKO
JARRERA OSASUNTSUA, ANTSIETATERIK GABE.**

ARAZOEN KONPONBIDE BATERATUA:

Arazo bati aurre egiteko bi pertsonen arteko elkarrizketa da. Guztiok irabazi ezik, ez dago traturik. Ulermen eta bizikidetzarako harraminta bat da. Gero eta erabiliagoa da politika, negozio mailean, etab. Modelo honen suposizioa zera da: bizikidetzaren guztiok elkarlanean aritzen direnean posiblea da eta gogo, behar eta iritzien ezberdintasunei irteerak aurkitzen saiatzen direnean hobetzen da.

PROZESUA:

- 1.- Zuk antzematen duzun **arazoa aipatu** eta taldeka naiz bakarka haien ikuspuntuak adieraztera gonbidatu.
- 2.- **Adi entzun** eta haiek sentitzen eta pentsatzen dutena ulertzen duzula erakutsi (haien lekuan jartzerakoan ulertzen eta ikusten duzuna adierazi).
- 3.- Zintzotasunez **zure sentimenduak, premiak eta kezkak adierazi**. Ez izan zalantzarik zure benetako premiak eta nahien arrazoia espresatzerakoan.
- 4.- Gogora iezaiezu elkarrekin gustora bizitzeko guztiontzako egokiak eta errespetagarriak diren irtenbideak aurkitu behar direla, guztion eskubideak eta premia zuzenak onartuak direlarik. Ondoren, arazoari aurre egiteko **irtenbideen zerrenda egitea proposatu**. Idatzi guztiak (zureak eta haienak), epaiketarik gabe. Guztiok onartutako irtenbideak bilatzeko esfortzua egin.
- 5.- Aukeratu zein alternatibak onartuak diren, zeintzu ez dituzte norbaiten eskubideak errespetatzen. **Adostu eta konpromezua hartu**.
- 6.- Akordioaren betetzea erraztu eta ondorioen analisia bultzatu. **Ebaluatu**.

NOLA HOBETU?





A) Jarrera orekatua garatzea aukeratuz.



B) Gure erantzunak aztertuz. (Astean behin: 15 minutu).



C) Musuaren legea erabiliz (Aurpegiaren alde batean ondo erantzun dudanean eta bestean gaizki erantzutean)



EKAITZA

Ekaitzak, ekaitzak
hostoak daramazki
zuhaitzak bilutsik.

Negarra, negarra
heriotz usaia
inguruan utzirik.

Gure basoko
zuhaitz lehorrek
oraindik irauten dute.

Lurraren babesak
ematen die
itxaropenezko bizitza.

Ekaitza, ekaitza
zure indarra
ez da iraunkorra.

Udaberria etorriko da
berarekin loreak.

Bizitza berri bat
etorriko da
lehortuko dira malkoak.

Haize leunak laztanduko ditu
gure aurpegi penatuak.

BENITO LERTXUNDI

BIBLIOGRAFIA:

- FRANKE-GRICKSH, M. (2004): *Eres uno de nosotros*. Ed. Alma Lepik. Argentina.
- GARCÍA PEREZ, E.M. & MAGAZ. A. (2003). *Dragones, Ratonés y Seres humanos auténticos. Entrenamiento en Asertividad*. Grupo Albor-Cohs.
- GOLEMAN, D. (1997): *Inteligencia Emocional*. Kairós. Barcelona.
- HELLINGER, B. (2006): *Los órdenes del amor*. Barcelona. Herder.
- HELLINGER, B.: *Felicidad Dual*. Barcelona. Herder.
- ROSENBERG, M. (2000): *Comunicación no violenta*. Urano. Barcelona.
- ORTEGA, R. y COL. (1998): *La convivencia escolar. Qué es y cómo abordarla*. Sevilla. Consejería de educación y ciencia.



Atención Integral al Desarrollo de la Persona
Gizakiaren Hazkunderako Laguntza Osoa

Gure web orrian aurkituko gaituzu!!

www.sorkari.com